SAIOA: 2018ko otsailaren 7an Sare Hezkuntza Mintegia. Donostiako Berritzegunea

# ARAZO EGOERATAN

# OINARRITUTAKO

# UNITATE DIDAKTIKOAK,

# KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO MARKOAN

@msuj



# Zer da guretzat Unitate Didaktiko bat?

-
-
-
-
-
-

# Prestakuntza, zer da? praktika ala teoria?

## Praktika:

Diseinua (... prestaketa)

Gelako jarduna...   (Ikasi, ebaluatu…)

Irakasleen arteko jarduna: erabakiak...

Familiekin jarduna...

## Teoria:

Egiten dugunari buruzko hausnarketa: gure ondorioak...

“Adituek” diotena

## Nola deitzen diegu ERE UDei?

Sekuentzia didaktikoa?

Gaia?

Lekzioa?

Jarduera...?

Atala?

Proiektua?

...



# UNITATE DIDAKTIKOAK ...
# KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO CURRICULUMEAN

## Zer da konpetentzia bat?

**Testuinguru** jakin batetan (pertsonala, akademikoa, soziala, laborala…), **arazo-egoera** bati **erantzuna edo irtenbidea** emateko aktibatzen ditugun ezagutza multzoa (jakin, egiten-jakin, kokatzen jakin…)

# konpetentzietan oinarritutako ereduaren ezaugarriak

Helburua: jakitea eta egiten jakitea. Bizitza osorako gaitasunak garatzea eta finkatzea

**Zeharkako gaitasunak eta diziplinarrak**

Edukiak ( kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) baliabideak dira gaitasunak lortzeko

- **Ikasleen irteera profila** definitzen da eta Etapa guztietan honi begira jartzen dira

- Metodologia aproposa: ezagutza funtzionalak, **testuinguru batean kokatzen den egoerak lantzea**, ikasitakoa egoera desberdinetan aplikatzea, irakaskuntza aktiboa, kooperatiboa eta pertsonalizatua




ZEHAR-KONPETENTZIAK
DIZIPLINA-DIZIPLINARTEKO KONPETENTZIAK
DEKRETUAK
Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazio digitalerako konpetentzia
Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
Elkarbizitzarako konpetentzia
Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia
Norberaren izaten ikasteko konpetentzia
Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentzia
Matematikarako konpetentzia
Zientziarako konpetentzia
Teknologiarako konpetentzia
Konpetentzia sozial eta zibikoa
Arterako konpetentzia
Konpetentzia motorra

- **Ikasgelan giro egokia sortzea:** ikasgelako giro afektiboa zaintzea, ikasleek dituzten aukerei adi egotea, eta abar.
- **Partaidetza-estrategiak sortzea:** zalantzak planteatzea, ikaskuntza funtzionalak helburu jakin batekin aurkeztea, eta abar.
- **Ikaskuntza-helbururako motibatzea:** ikaskuntza-helburuak jakinaraztea, ikasleekin negoziatzea, eta abar.
- **Ikaskuntzaren autonomia sustatzea:** metodo transmisiboak era mugatuan erabiltzea, irakasleen eta ikasleen egitekoak aldatzea, eta abar.
- **IKTak modu integratuan eta esanguratsuan erabiltzen direla sustatzea:** baliabide digitalak erabiltzea (esaterako, webquest-ak, altxorraren bila, blogak), IKTak erabiltzea ikasteko eta ikasgelako kideen arteko komunikaziorako, eta abar.
- **Hainbat informazio-iturri erabiltzen direla sustatzea:** ikasliburua ez da informazio-iturri bakarra; informazio-iturrietarako sarbidea gidatzea, eta abar.
- **Ikasitakoaren ahozko edo idatzizko komunikazioa bultzatzea:** ikasitakoa komunikatzea, berdinen arteko interakzioa sustatzea jakintza eraikitzeko, eta abar.
- **Ebaluazio hezigarria sustatzea:** autorregulaziorako egoerak sortzea, ebaluazio-irizpideak jakinaraztea, autoebaluazioa indartzea, eta abar.
- **Espazioaren eta denboraren hainbat antolamendu bultzatzea:** ikasgelako espazioaren antolamendua aldatzea, lan-saioen iraupena malgutzea, eta abar.
- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna ikas eremutik kanpo sustatzea:** ikasgai guztien arteko erlazioaren alde egitea, metodologia globalak erabiltzea, eta abar.

*Ángel Pérez Gómez*

## UNITATE DIDAKTIKOAREN PRINTZIPIO METODOLOGIKOAK



# Zer da Unitate Didaktiko bat?

- **Unitate didaktikoak praktika pedagogikoa egituratzen du eta praktika didaktikoaren plangintzarako, analisirako eta ebaluaziorako erabakiak hartzen laguntzen du**
- **Koordinatutako jarduera-multzo bat da, helburu batera, produktu batera eta amaierako lan batera bideratutakoa.**
- **Ezaugarriak:**
  - **Programazioaren barruan, lan-unitate bezala identifikatzen da**
  - **Bizitza errealari lotutako arazo-egoerak planteatu behar ditu**
  - **Ikasleen bizitzaren testuinguruak adierazi behar ditu**
  - **Ikaskuntza helburu argiak planteatu behar ditu**
  - **Ebaluazioa barne hartu behar du, prozesuaren ezinbesteko zatia baita**
  - **Ikasitakoa egoera berrietan erabiltzen lagundu behar du**



# Unitate didaktikoak ditu ikaslearentzat
(irakasleen prestakuntzan ere…)

Hasiera fasea- Ikas jarduerak/balorazio jarduerak
Garapen Fasea- Ikas jarduerak/balorazio j.
Aplikazio-komunikazio fasea Ikas jarduerak/balorazio j.
Transferentzia fasea.Ikas jarduerak/balorazio jarduerak

# **UDak dituen beste** osagai batzuk izaten ditu...diseinuan

- **Jarduerak**
- **Arazo-egoera** (Testuingurua, abiapuntua (erronka, arazo-egoera…), ataza
- **Baliabideak:** materialak, IKT tresnak,
- **Edukiak**
- **Taldekatzea eta antolaketa** (Espazio fisikoa, espazio birtuala…)
- **Ebaluazio moduak eta tresnak** (Autoebaluazioa, Ikaslearen karpeta, txantiloiak…)
- **Helburuak**
- **Ebaluazio adierazleak**
- **Konpetentziak**

# Zer somatzen dugu gelan, dena batera...?

- **Espazioa**, espazioko tresnak (mahaik, aulkiak, alfonbrak, siloiak, lurra, paretak, leihoak, argia, liburuak, fitxak, argazkiak, pinturak, idazteko tresnak, gailuak, karpetak, arbela(k), zakarrontzia, kojinak, jokuak, motxilak, abriguak, armairuak, kartelak, panelak, usaia, zarata (k), kontaktoa…)
- **Denbora** jakin batetan, ...
- **Pertsonak akzioan, mugimenduan, interakzioan (pertsonekin, gauzekin…)**
    - **haurrak/gazteak** (ikasle rola?...)
    - **helduak:** irakasle rola(k), laguntzailea, gurasoak, begiralea, praktiketakoa…
    - bakarka edo taldeka…
    - Hitz egiten, idazten, kantatzen, entzuten, irakurtzen...
    - Haserre, lasai, triste, alai, zoriontsu, minduta, harrituta, ikaratuta, nazkatuta...
    - kontzentratuta, despistatuta, negarrez, barrez,

**ARAZO EGOERAREN OSAGAI BATZUK: Testuingurua, Arazo-egoera- Ataza… gehi “Azken xedea” eta jarraibideak (jardueren zerrendatxoa)**

**Testuingurua:** Gaur egun, konpetentzietan oinarritutako curriculuma martxan dagoen honetan, eremu profesionalean...

**Arazo-egoera** (erronka): Ikastetxean, orain arte landu ditugun hainbat dimentsio UDetan txertatu beharra: Ikaskuntza kooperatiboa, Golden 5 (harremanak eraikitzen, gelako kudeaketa, giro soziala, ikaskuntza doitua, familia) beti ere ikasleen konpetentzi guztiak garatzen aldera: Komunikaziorako K, K. digitala, pentsatzen ikasi, ekimenerako k, norbera izaten ikasteko k. (autonomiarako k), elkarbizitzarako K.

**Ataza:** Gure praktika eraginkorrenetatik abiatuz, hainbat osagai aldatu-txertatu-egokituz(eta praktikara eramango dugun) **UD koherente bat osatzea.**

# UNITATE DIDAKTIKOAREN ESKEMA

## SEKUENTZIA DIDAKTIKOA DISEINATZEKO EREDUA

**JUSTIFIKAZIOA**

Zertarako egiten dugu?

**OINARRIZKO KONPETENTZIAK**

Zeintzuk dira garatuko ditugun konpetentziak?

**HELBURU DIDAKTIKOAK**

Zeintzuk dira lortu nahi ditugu ikaskuntzak?

**BALIABIDEAK ETA IKT TRESNAK**

Zer materialak dira beharrezkoak? Zer IKT tresnak behar ditugu?

**TALDEKATZEAK ETA ANTOLATZEA**

Nola taldekatuko ditugu ikasleak?
Nola antolatuko dugu gela?

### JARDUEREN SEKUENTZIA

**HASIERAKOA FASEA**

Arazo-egoera: Testuingurua, erronka eta ataza

Lanaren planifikazioa

↓

**GARAPEN FASEA**

Jarduerak ikaskuntza berriak txertatxeko, ikaskuntzak aplikatzeko eta finkatzeko, eta ikaskuntzak egituratzeko.

↓

**APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO-FASEA**

Ikasitakoa aplikatzea eta komunikatzea (Planteatutako arazo-egoera ebaztea)

→

**EBALUAZIOA**

**EBALUAZIO-IRIZPIDE ETA ADIERAZLEAK**

Curriculumetik zer irizpide eta adierazle daude lotuta aukeratutako konpetentzia eta helburuekin?

**EBALUATZEKO MODUAK ETA TRESNAK**

Zer ebaluazio tresna eta estrategiak erabiliko ditugu?

**OROKORTZE ETA TRANSFERENTZIA FASEA**

Ikasitakoa beste antzeko egoera batean erabil daitekeela egiaztatzea

# PLANTILLA PARA EL DISEÑO DE SECUENCIAS DIDÁCTICAS

**JUSTIFICACIÓN**

¿Para qué y por qué es relevante?

**COMPETENCIAS BÁSICAS**

¿Qué competencias esperamos desarrollar?

**OBJETIVOS DIDÁCTICOS**

¿Qué aprendizajes esperamos lograr?

**RECURSOS Y HERRAMIENTAS TIC**

¿Qué materiales son necesarios? ¿Qué herramientas TIC necesitamos?

**AGRUPAMIENTOS Y ORGANIZACIÓN**

¿Cómo se va a agrupar el alumnado?
¿Cómo se va a organizar el aula?
¿Qué personas deben implicarse?

## SECUENCIA DE ACTIVIDADES

**FASE INICIAL**

Situación problema: contexto, problema y tarea

Planificación de la tarea

**FASE DE DESARROLLO**

Introducción de nuevos aprendizajes

Aplicación de aprendizajes

Reestructuración de los aprendizajes

**FASE DE APLICACIÓN Y COMUNICACIÓN**

Resolución de la situación problema
Difusión del producto inicial

**EVALUACIÓN**

**CRITERIOS E INDICADORES DE EVALUACIÓN**

¿Qué criterios e indicadores del currículo están relacionados con los objetivos y competencias seleccionados

**METODOS DE EVALUACIÓN**

¿Qué herramientas y estrategias e evaluación se van a utilizar?

**FASE DE GENERALIZACIÓN Y TRANSFERENCIA**

Comprobación del grado de desarrollo adquirido de las competencias

## II. ERANSKINA

## ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKO BAT PROGRAMATZEKO TXANTILOIA

IZENBURUA:

Arloa (K):

UDaren egileak eta data (aukeran)

Gaia (K):
(Eduki(k))

Maila:

Saioak: (kopurua)

Proposamenaren justifikazioa:

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

B. Arazoa [Problema/egoera/erronka/abiapuntua/eragozpena/ /eskaera/demanda/enkargua/irtenbidea eman nahi diogun zera bori...)

C. Helburua:

Egikizuna/Ataza/Lana/Tarea/Ekoizpena/Produktua:

Oinarrizko konpetentziak:

A. Zeharkakoak:

-
-
-
-
-

B. Diziplina-konpetentziak:

-
-
-
-
-
-

Helburu didaktikoak:

-
-
-
-
-

Edukiak:

-
-
-
-

Jardueren sekuentzia:

A. Hasierako fasea:

B. Garapenaren fasea:

C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:

D. Orokortzea eta transferentzia:

Ebaluazioa

A. Adierazleak:

B. Tresnak:

OHARRAK


ARAZO-EGOERA
Edukiak
Gaia +
Testuingurua
Arazo-egoera
Ekoizpena
Konpetentziak
Ikasteko
tresnak
Ebaluazio-
tresnak
Ebaluazio-
irizpideak
Hasiera
Garapena
Aplikazioa+
komunikazioa
Orokortzea
+Transferentzia
Jatorria: 5 Minute Lesson Plan©


ARAZO-EGOERA: Harriz harri
Edukiak
Eduki komunak, Geosfera, arrokak, mineralak, zikloa, ezaugarriak, sailkapena, erabilera, Euskal Herriko material geologiko nagusiak
Gaia + Testuingurua
Inguruneko arroka eta mineralak
Arazo egoera
Auzoko arroka eta mineralak ikerketatzea
Ekoizpena
Nire auzoko gida geologikoa
Konpetentziak
Zientifikoa
Komunikazioa-Digitala
Ikasten-ikastea
Gizartekoa
Ekimenerakoa
Ikasteko tresnak
-Planifikazioa
-ikas-egunerokoa
-Elkarren arteko ebaluazioa
-Talde-ebaluazioa
-Kanpoko ebaluazioa
Ebaluazio-tresnak
-Koadernoa Kontrol-zerrenda
-Gida: Balorazio-eskala
-Kontrola (Integrazioa-egoera): Balorazio-eskala
Ebaluazio-irizpideak
1,2,3,5,10 (Dekretua)
K: klase osoa / B: bikoteka / T: taldeka / N: nork berea
Hasiera
-Aurkezpena K
-Aurreideiak eta planifikazioa: T
Garapena
-Irakaslearen azalpenak K
-Ginkana B/N: Arrokak eta mineralen ezaugarri nagusiak
-Horma-irudi kooperatiboa: T
-Arroken sailkapena: T laborategia
-Jolasa: T Euskadiko geodibertsitatea
-Irakaslearen azalpenak: K
-Irteera didaktikoa: T
-Gure etxeko arrokak (etxerakolanak): N
-Emaitzen analisia: T
-Materialen ikerketa Interneten: B historia, erabilera... eta fitxak bete
Aplikazioa + Komunikazioa
-Ekoizpena: T Gida geologikoa burutzea
-Hedatzea: T
Internetera gora eraman
eta Eskola Komunitatearen iritzia jaso
Orokortzea eta transferentzia
-Kontrola: N

# Nondik hasi UD bat idazten eta nola joan osatzen praktikatik abiatuz eta praktikarako…?

Edozein osagaietik…

Eskema sistemikoa delako…

Bat aldatzen denean, besteak ere bai. Batak beste baldintzatzen du...

# Egoerak testuinguru batean kokatzen dira



# EDUKI KOMUNAK DITUGU ARLO BAKOITZAK GAUR EGUNGO CURRICULUMEAN

## 1.1.2.4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako edukiak

**1. MULTZOA. Eduki komunak**

Arlo eta ikasgai guztien oinarrizko zehar-konpetentzia komunekin lotutako edukiak. Multzo honetako prozedura eta jarreren xede dira:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

Konpetentzia: ezagutzen **erabilpena** testuinguru jakin batetan, egoera bati erantzun bat emateko

Horregatik **ADITZAK:** ikus ondoko eskema...pentsamendu gaitasunekin lotuta…

Gogoratu, ulertu, aplikatu, analiztu, ebaluatu, sortu...



# Gure ideia batzuk...

1- Diseinua eta praktikaren artean ematen den distantzia...kontutan hartu.

- Praktikaren hausnarketak eramango gaitu diseinu hurbilagoak egitea...?
- Ikasleek ere honetaz jabetu daitezke…?

2- Helburuak dira derrigorrezkoak: edukiak helburuen zerbitzura…

- Helburuak garbi eta eduki gutxiago...?

3- Ikaskuntza, esanguratsua nola bideratu? Esanguratsua ikasle guztientzat… Bere nahiak kontutan hartzea…

- Nola uztartu nahiak eta...ikasi beharrezkoa…?

4- Ikaslearen inplikazio lortzearen garrantzia prozesu anitzetan: diseinuan-garapenean-ebaluazioan…
Motibazioa honekin lotzea.

- Honek denbora eskatzen du: diseinua eta ebaluazioak hausnarketa-esfortzua handia eskatzen du. Emozionalki eta kognitiboki...Ikasleei, Irakasleei eta familiei...Zer esanik ez, hausnarkera kolektiboa denean...

# Gure ideia batzuk...

5- Ikasleen motibazio aniztasuna, bizitza estiloena, harreman estiloena, gogoarena, erritmoena… Eta irakasleena…

- Guztiok merezi dute-dugu konpetentzia guztiak garatzea… Ikasle batzuei egiten zaizkien proposamenak toki gutxi uzten die konpetentzia batzuei:
  izaten ikasi, pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarbizitzen ikasi, ekiten ikasi…
  Noren esku jartzen da ezagutzaren kapital soziala?

6- Gela eta harremanen egituraketaren garrantzia: denok eroso mugitzeko mugak-arauak

- Gelako eta ikastetxeko arau demokratikoak dira harreman markoa, kontratua, hitzarmena...Nork esan zuen erreza zenik?

Eskolako egunerokoan DENA batera gertatzen da: horregatik da konplexua, intentsoa, nekagarria, zaila… eta aberatsa, etengabeko erronka, eta abentura profesionala.